| | |
|---|---|
| 2025/108 EBAZPENA, Enplegu Publikoko sailburuordearena, bere bitartez ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN lan-poltsak berrantolatzeko, egokitzeko eta sortzeko irizpideak. | RESOLUCIÓN 2025/108, de la Viceconsejería de Empleo Público, por la que se establecen los criterios para la reordenación, adecuación y creación de las bolsas de trabajo de PERSONAL LABORAL con las que atender las prestaciones de servicio de carácter temporal en la Administración de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzua emango duten langileen hautaketa arautzen da. Agindu horren 3. eta 4. artikuluen arabera, enplegu publikoaren eskaintzak lan-poltsak handitzeko eta lan-poltsa berriak eratzeko tresnak dira. | La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. Sus artículos 3 y 4 establecen que las Ofertas públicas de empleo son instrumentos tanto para la ampliación como la constitución de nuevas bolsas de trabajo. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduak (zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak) 18. oinarrian ezartzen duenez, hautaketa-prozesuak amaitzean, dagozkion lan-poltsak berrantolatuko dira, eta enplegua finkatzeko prozesu berezietan onartu diren eta hautatu ez diren pertsonak sartuko dira lan-poltsa horietan. Kategoria jakin baterako hautaketa-probak lehiaketa-sistemaren bidez baino ez badira egiten, Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Ebazpen baten bidez zehazten den puntuazioa gainditzen duten pertsonak sartuko dira lan-poltsetan, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren. | La base 18 de la Orden de 8 de septiembre de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos especiales de consolidación de empleo y los procesos excepcionales de consolidación de empleo en puestos reservados a personal laboral del Convenio de Colectivos laborales al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece que a la finalización de los procesos selectivos, se procederá a la reordenación de las bolsas de trabajo correspondientes, a las que se incorporarán las personas que hayan resultado aprobadas y no seleccionadas en los procesos especiales de consolidación de empleo. En el caso de que las pruebas selectivas para una determinada categoría se realicen únicamente mediante el sistema de concurso, se incorporarán a las bolsas de trabajo las personas que hayan superado la puntuación que se determine mediante Resolución de la Viceconsejería de Función Pública, previa negociación con la representación del personal. |
| Berrantolaketa hori Enplegu Publikoko sailburuordearen ebazpen baten bidez zehazten diren irizpideen arabera gauzatuko da, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren. Bien bitartean, indarrean jarraituko du gaur egun dauden lan-poltsen hurrenkerak. | Dicha reordenación se llevará a cabo conforme a los criterios que se determinen mediante Resolución de la Viceconsejería de Empleo Público, previa negociación con la representación del personal, manteniéndose entre tanto en vigor el orden de las bolsas de trabajo actualmente existentes. |

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

| | |
|---|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea argitaratu ondoren, lan-poltsak egokitzeko prozesu bat egin da, baina 2019an, lanpostu-zerrenda (LPZ) berria argitaratu zenean, ez zen halakorik egin. Lanpostuen zerrenda berri horrek zenbait lanpostu eskuratzeko baldintzak aldarazi zituen. Gainera, lanpostu askotan ez dago lanpostu horiek eskaintzeko poltsa zehatzik. Horregatik, indarrean dagoen LPZra egokitzeko, lan-poltsak berrantolatzeaz gain, poltsa berriak eratu behar dira, eta eskuratzeko baldintzak aldatu diren lanpostuei dagozkien poltsetan dauden langileak egokitu. | En 2019, tras la publicación de la nueva relación de puestos de trabajo laborales (RPT), no se produjo un proceso de adecuación de bolsas, tal y como se ha producido tras la publicación de la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta nueva relación de puestos originó cambios en los requisitos de acceso a algunos puestos. Por ello, para adecuarse a la RPT vigente, además de realizar una reordenación de las bolsas, se deben constituir nuevas bolsas, y adecuar al personal que integra las bolsas que dan acceso a puestos que han cambiado de requisitos. |
| Langile lan-kontratudunen hautaketa-prozesuak amaitzean lan-poltsa batzuk berrantolatu egingo dira, beste batzuk sortu, eta beste batzuk deuseztatu egin beharko dira:<br>- Berrantolatu egingo dira finkatze-prozesuan deitutako lanpostu batekin identifikatzen diren lan-poltsak.<br>- Lan-poltsa berri bat sortuko da, poltsa jakin batekin identifikatzen ez den lanpostu baterako hautaketa-prozesuaren deia egin bada.<br>- Deuseztatu egingo dira lanpostuen zerrendako edozein lanposturekin identifikatzen ez diren lan-poltsak. | A la finalización de los procesos selectivos de personal laboral unas bolsas se reordenarán, se crearán otras nuevas, y otras existentes, se declararán a extinguir:<br>- Se reordenarán las bolsas ya existentes que se identifican con un puesto convocado en el proceso de consolidación.<br>- Se constituirá nueva bolsa cuando haya convocado un proceso selectivo de un puesto que no se identifique con una bolsa en concreto.<br>- Se extinguirán las bolsas que no se identifican con ningún puesto de la Relación de puestos de Trabajo (RPT) . |
| Egungo finkatze-prozesuetan eskaini ez diren lanpostu-zerrendako lanpostuei dagozkien lan-poltsak gaur egun bezala mantenduko dira. | Las bolsas de trabajo que se corresponden con puestos de la relación de puestos de trabajo no convocados en los actuales procesos de consolidación se mantendrán en los términos actuales. |
| Horrela, aurreko paragrafoko langileak eta deuseztatutako lan-poltsetako langileak “aldi baterako lan-poltsa” izeneko poltsa batean sartuko dira. Poltsa hori C eta E antzinatasun-taldeetako lanpostuak salbuespenez kudeatzeko baino ez da erabiliko, eta sortzen denetik sei hilabetean soilik. | Así, el personal del párrafo anterior y el personal integrante de una bolsa extinguida, pasará a integrar una bolsa denominada “Bolsa transitoria”. Esta bolsa se usará únicamente en gestión excepcional de puestos de los grupos de antigüedad C y E , y sólo durante 6 meses desde su creación. |
| Lan-poltsak berrantolatzeko, langileak egokitzeko eta poltsa berriak eratzeko irizpideak langileen ordezkariekin negoziatu ostean eta lan-kategoria bakoitzaren hautaketa-prozesua amaitu ondoren, dagokion poltsa berrantolatuko da edo poltsa berriak eratuko dira, eranskinetako irizpideen arabera. | Negociados los criterios de reordenación, adecuación y constitución de nuevas bolsas con la representación de personal y una vez finalizados los procesos selectivos de cada categoría laboral, se procede a reordenar la bolsa correspondiente o constituir nuevas bolsas, conforme a los criterios de los Anexos. |

| | |
|---|---|
| Aintzat harturik Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17.2.g) artikuluak ematen dituen eskumenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren azken xedapenetako bigarrenari jarraituz, honako hau | En virtud de la competencia atribuida en el artículo 17.2.g) del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno y de la Disposición final segunda de la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, |
| EBAZTEN DUT: | RESUELVO: |
| *Lehenengo artikulua.* – I. eranskinean, lan-poltsa hauetan sartzeko eta berrantolatzeko irizpideak ezartzea:<br>Sukalde eta jantokiko laguntzailea<br>Arte grafikoetako laguntzailea<br>Autopsietako laguntzailea<br>Ikuztegiko laguntzailea<br>Sukaldaria<br>Ibaiondoko koordinatzailea<br>Saileko gidaria<br>Justiziako hezitzailea<br>Ibaiondoko hezitzailea<br>Sukalde eta jantokiko arduraduna<br>Kaizaina<br>Garbiketa-burua<br>Garbitzailea<br>Laborategiko garbitzailea<br>Mekanikaria<br>Mekanikari gainbegiralea<br>Peoia<br>Peritu judiziala<br>Ibaiondoko psikologoa<br>Justiziako psikologoa<br>Itsasontziko arduraduna<br>Inprentako arduraduna<br>Mantentze-lanetako arduraduna<br>Histopatologiako teknikaria<br>Laborategiko teknikaria<br>Mantentze-lanetako teknikaria<br>Baliabide orokorren teknikaria (Bilbo/Donostia)<br>Baliabide orokorren teknikaria (Lakua-Fadura)<br>Ibaiondoko gizarte-langilea<br>Justiziako gizarte-langilea<br>Gaueko jagolea | *Artículo primero.* – Establecer en el Anexo I los criterios de integración y reordenación de las siguientes bolsas:<br>Ayudante cocina-comedor<br>Auxiliar artes graficas<br>Auxiliar de autopsias<br>Ayudante de lavandería<br>Cocinero/Cocinera<br>Coordinador/Coordinadora Ibaiondo<br>Conductor/Conductora de departamento<br>Educador/Educadora Justicia<br>Educador/Educadora Ibaiondo<br>Encargado/Encargada cocina comedor<br>Guardamuelles<br>Jefe/Jefa limpieza<br>Limpiador/Limpiadora<br>Limpiador/Limpiadora laboratorio<br>Mecánico/Mecánica<br>Monitor/Monitora de prácticas<br>Peón/Peona<br>Perito/Perita judicial<br>Psicólogo/Psicóloga Ibaiondo<br>Psicólogo/Psicóloga Justicia<br>Responsable embarcación<br>Responsable imprenta<br>Responsable mantenimiento<br>Técnico/Técnica de histopatología<br>Técnico/Técnica de laboratorio<br>Técnico/Técnica mantenimiento<br>Técnico/Técnica recursos generales (Bilbao/Donostia)<br>Técnico/Técnica recursos generales (Lakua-Fadura)<br>Trabajador/Trabajadora social Ibaiondo<br>Trabajador/Trabajadora social Justicia<br>Vigilante nocturno |

| | |
|---|---|
| *Bigarren artikulua.* – Lan-poltsa berriak eratzea, eta II. eranskinean lan-poltsa hauetan sartzeko eta hauek antolatzeko irizpideak ezartzea:<br>Laborategiko laguntzailea<br>Kaizainburua<br>Kontserbatzailea<br>Elektrikaria (espetxeak)<br>Medikua (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia)<br>Mekaniko gainbegiralea<br>Praktiketako monitorea<br>Sukaldeko arduraduna<br>EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna<br>Laborategiko teknikari fakultatiboa<br>Itzultzaile-interpretea | *Artículo segundo.* – Constituir nuevas bolsas y establecer en el Anexo II los criterios de integración y ordenación en las siguientes bolsas:<br>Ayudante de laboratorio<br>Cabo de guardamuelles<br>Conservador/Conservadora<br>Electricista (II.PP.)<br>Mecánico/ Mecánica supervisor/a<br>Médico/Médica (Agencia vasca antidopaje)<br>Responsable cocina<br>Responsable de gestión y mantenimiento de la red corporativa EJ/GV<br>Técnico facultativo/Técnica facultativa de laboratorio<br>Traductor/Traductora e intérprete |
| *Hirugarren artikulua.*- Honako poltsa hauek deuseztatzea:<br>Sukaldeko laguntzailea-garbitzailea<br>Zerbitzaria<br>Baliabide orokorretako teknikaria<br>Automobilgintzako goi-mailako teknikaria<br>Ikastetxeko peoia (Eibar) | *Artículo tercero.*- Extinguir las siguientes bolsas:<br>Ayudante cocina-limpiador<br>Camarero/Camarera<br>Técnico/Técnica recursos generales<br>Técnico/Técnica Superior de Automoción<br>Peón/Peona centro educativo (Eibar) |
| *Laugarren artikulua.*- "Aldi baterako lan-poltsa" izeneko poltsa sortzea, eta III. eranskinean lan-poltsa horretan sartzeko eta hauek antolatzeko irizpideak ezartzea. | *Artículo cuarto.*- Crear la bolsa denominada “Bolsa transitoria” y establecer en el Anexo III los criterios de integración y ordenación en dicha bolsa. |
| *Bosgarren artikulua.*- Lan-poltsa hauek aldatu gabe mantentzea:<br>Elkarrizketatzailea<br>Ikuskatzailea<br>Laborategiko langilea<br>Irudi-teknikaria | *Artículo quinto.*- Mantener inalteradas las siguientes bolsas:<br>Agente entrevistador<br>Inspector<br>Operario/a de laboratorio<br>Técnico/a de imagen |
| *Seigarren artikulua.* – Ebazpen honen ondorioetarako, hautaketa-prozesua amaitutzat emango da 2025eko urriaren 1ean. | *Artículo sexto.* – A los efectos de esta Resolución, se considera finalizado el proceso selectivo el 1 de octubre de 2025. |
| *Zazpigarren artikulua.*- Lan-poltsek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak:<br>www.euskadi.eus/lanpoltsak. | *Artículo séptimo.*- Las bolsas de trabajo surtirán efectos desde el día siguiente de su publicación en el portal de bolsas de trabajo:<br>www.euskadi.eus/bolsasdetrabajo. |
| Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. | Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. |

| Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.<br><br>Enplegu Publikoko Sailburuordea<br>MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA | En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de firma electrónica.<br><br>Viceconsejera de Empleo Público<br>MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA |
|---|---|

| | |
|---|---|
| I. ERANSKINA. LANPOSTUAK FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK AMAITU ONDOREN LAN-POLTSAK BERRANTOLATZEKO IRIZPIDEAK | ANEXO I. CRITERIOS DE REORDENACIÓN DE BOLSAS FINALIZADOS LOS PROCESOS SELECTIVOS DE CONSOLIDACIÓN |
| Lehenengoa.- Lan-kategorien lan-poltsak berrantolatzea<br>Indarrean dagoen LPZko lanpostu bat bada eta izen hori duen lan-poltsa bat badago, poltsa hori berrantolatu egingo da. | Primero.- Reordenación de las bolsas de trabajo de categorías laborales<br>Se procederá a la reordenación de la bolsa cuando sea un puesto de la RPT vigente y exista la bolsa con esa denominación. |
| Bigarrena.- Berrantolatutako poltsetan sartzea<br>Lan-kategoria bakoitzeko lan-poltsan sartuko dira, lan-kontratuko langile finko izatera iritsi ez badira eta lan-kategoria horretan sartzeko baldintzak betetzen badituzte, baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak: | Segundo.- Integración en las bolsas reordenadas<br>Formará parte de la bolsa de cada categoría laboral, siempre que no hayan accedido a la condición de personal laboral fijo y cumplan los requisitos de acceso de esa categoría laboral, quienes cumplan alguno de los siguientes requisitos: |
| 1. Lan-kategoriaren hautaketa-prozesua amaitzen denean lan-poltsaren barruan egotea. | 1. Integrar la bolsa en el momento que finaliza el proceso selectivo de la categoría laboral. |
| 2. Lan-kategoria finkatzeko hautaketa-prozesu berezia gainditu izana. Kategoria horretan finkatze-prozesu berezirako deialdirik egin ez bada, salbuespenezko finkatze-prozesuan 0 puntu baino gehiago lortu dituzten langileak sartuko dira. | 2. Superar el proceso selectivo especial de consolidación de la categoría laboral. En el supuesto de que no se hubiese convocado un proceso especial de consolidación en esa categoría, se integrará el personal que hubiera obtenido una puntuación superior a 0 puntos en el proceso excepcional de consolidación. |
| Hirugarrena.- Puntuazioa eta lan-poltsako ordena<br>Poltsa bakoitzeko kideak honako atal hauetan dituzten puntuen baturaren arabera ordenatuko dira: | Tercero.- Puntuación y Orden en la bolsa<br>El personal integrante de cada bolsa se ordenará por la suma de las puntuaciones de los siguientes apartados: |
| 1. Finkatze-prozesua amaitze denean, lan-poltsan duten puntuazioa. Lan-kategoriako lan-poltsan aurretik zeudenek soilik izango dute puntuazio hori. Gainerako kideek 0 puntu izango dute atal honetan. | 1. La puntuación alcanzada en la bolsa en el momento de finalización del proceso de consolidación. Esta puntuación sólo la tendrán quienes ya pertenecieran a la bolsa de la categoría laboral. El resto de integrantes tendrán puntuación 0 en este apartado. |
| 2. Lan-kategoriako hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioa. | 2. Por la puntuación obtenida en el proceso selectivo de la categoría laboral. |
| a. Hautaketa-prozesu berezia gainditu eta 60,000 puntu lortu dituztenek puntu 1 lortuko dute atal honetan; 200,000 puntu lortu dituztenek, berriz, 3 puntu. Tarteko puntuazioak hainbanatu egingo dira. | a. Quienes hayan superado el proceso selectivo especial y obtenido la puntuación de 60,000 puntos obtendrán en este apartado 1 punto, y 3 puntos quienes hayan obtenido la puntuación de 200,000. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas. |
| b. Finkatzeko hautaketa-prozesu berezietarako deialdirik egin ez den kategorien | b. En el caso de categorías en las que no se haya convocado procesos selectivos |

kasuan, salbuespenezko hautaketa-prozesuan 0 puntu lortu dutenek puntu 1 lortuko dute, eta 100 puntu lortu dituztenek, berriz, 3 puntu. Tarteko puntuazioak hainbanatu egingo dira. Era berean, hautaketa-prozesuan 0 puntu lortu dutenek 0 punturekin sartuko dira lan-poltsan.

c. Berdinketarik badago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da.

Hala, berdinketa hausteko, emakumeen alde ebatziko da, baldin eta deialdiari dagokion kategorian emakume-kopurua % 40tik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexu-diskriminaziorik eragiten ez dutenak, adibidez: enplegua lortzeko eta lanpostu-mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea proba teoriko-praktikoan (B zatia) lortutako puntuazioa da, handienetik txikienera ordenatuta.

Berdinketa gertatuz gero, hizkuntza-eskakizuna erabiliko da, hizkuntza-eskakizun handienetik txikienera ordenatuta.

Oraindik ere berdinketa badago, berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko urriaren 23ko Ebazpenean argitaratutako letra izango da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da zein den 2025-2026 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere aplikatuko dena. Zozketaren emaitza «R» hizkia da. Irizpide hori hurrenkera alfabetikoan aplikatuko da; lehenik, lehenengo abizenarekin; oraindik berdinketa badago, bigarren abizenarekin, eta, azkenik, izenarekin.

especiales de consolidación, quienes hayan obtenido una puntuación de 0 puntos en el proceso selectivo excepcional obtendrán una puntuación 1 punto, y 3 puntos los que obtengan 100 puntos. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas. Asímismo, quienes hayan obtenido 0 puntos en el proceso selectivo integrarán la bolsa con 0 puntos.

c. En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en la categoría correspondiente a la convocatoria, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

El siguiente criterio de desempate es la puntuación obtenida en la prueba teórico-práctico (parte B), ordenados de mayor a menor puntuación en esa prueba.

En caso de empate, se usará el perfil lingüístico, ordenados de mayor a menor perfil.

De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en Resolución de 23 de octubre de 2024, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2025-2026, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar. El resultado del sorteo es la letra “R”. Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre.

| | |
|---|---|
| Laugarrena.- Lan-poltsetan dauden langileen egoerak eta lehentasunak<br>1.- Lan-poltsan lehendik dauden langileek ezarrita dauzkaten egoera eta lehentasunak mantenduko dituzte.<br><br>2.- Lan-poltsan lehen aldiz sartzen diren langileak lanerako prest egoeran sartuko dira, eta aukera hauek edukiko dituzte lehenetsita:<br>- Edozein prestazio-modalitate<br>- Edozein lanaldi<br>- Edozein ordutegi<br>- Edozein eremu geografiko<br><br>3.- Interesdunek ebazpen honetan ezarritako lanerako prestasuna eta lehentasunak aldatu ahal izango dituzte Lan-poltsen Atariaren bitartez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da.<br><br>Aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik izango dituzte ondorioak.<br><br>Bosgarrena.- Penalizazioak eta desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa<br>1. Lan-poltsako langileen penalizazioen kalkuluari eutsiko zaio.<br>2. Penalizazioagatik lanerako prest ez egotea mantenduko da, eta horrek poltsa zehatz bati edo edozein poltsari eragingo dio.<br>3. Kupoa zenbatzeko, 12 hilabete baino gehiago irauten duten 14 lanpostutik 1 zenbatuko da, baldin eta desgaitasuna duten langileen kopurua langile guztien % 2ra iristen ez bada.<br><br>Seigarrena.- Publikotasuna<br>1. Lan-poltsa berrantolatuak osatzen dituzten langileen zerrenda, gehienez ere, 2 hilabeteko epean argitaratuko da Lan-poltsen Atarian. Egoitza elektronikoaren bidez sar daiteke bertara, baita helbide honen bidez ere: www.euskadi.eus/lan-poltsak | Cuarto.- Situaciones y preferencias del personal integrante<br>1.- El personal que ya estuviera en la bolsa mantendrá la situación y preferencias que tiene establecidas.<br><br>2.- El personal que se integra por primera vez en la bolsa lo hará en situación de disponible, y tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones:<br>- Cualquier modalidad de prestación<br>- Cualquier jornada<br>- Cualquier horario<br>- Cualquier zona geográfica<br><br>3.- El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo, de conformidad con lo previsto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.<br><br>Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectuen.<br><br>Quinto.- Penalizaciones y cupo para personas con discapacidad<br>1. Se mantiene el cómputo para las penalizaciones del personal integrante de la bolsa.<br>2. Se mantiene la situación de no disponible por penalización que afecta a la bolsa o a cualquier bolsa.<br>3. Se iniciará el conteo para el cómputo del cupo de 1 de cada 14 plazas de duración mayor de 12 meses, cuando no se alcance el 2% de personas con discapacidad sobre el total de efectivos.<br><br>Sexto.- Publicidad<br>1. El listado de personal integrante de las bolsas de trabajo reordenadas se publicará en el plazo máximo de 2 meses en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección: www.eukadi.eus/bolsasdetrabajo |

| | |
|---|---|
| 2. Lan-poltsa lehen aldiz osatzen duten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lan-poltsetako kide direla, zer araudik erregulatzen dituzten eta zer izapide egin behar dituzten lan-eskaintzak jasotzen hasteko. | 2. El personal que integre la bolsa por primera vez recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo. |
| II. ERANSKINA. LANPOSTUAK FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK AMAITU ONDOREN LAN-POLTSA BERRIAK SORTZEKO IRIZPIDEAK | ANEXO II. CRITERIOS DE FORMACIÓN DE NUEVAS BOLSAS FINALIZADOS LOS PROCESOS SELECTIVOS DE CONSOLIDACIÓN |
| Lehenengoa.- Poltsa berriak sortzeko irizpideak<br>Lan poltsa berriak sortuko dira lanpostuak finkatzeko hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuaren kategoria indarrean dagoen lan-poltsa bakar baten izendapenarekin bat ez datorrenean. | Primero.- Criterios para crear nueva bolsa<br>Se procederá a la creación de nuevas bolsas cuando la categoría del puesto convocada en el proceso selectivo de consolidación no coincide con la denominación de ninguna bolsa existente. |
| Bigarrena.- Lan-poltsa berrietako kideak<br>1. Lanpostuak finkatzeko hautaketa-prozesu berezia gainditu arren kategoria horretako langile finko izatera iritsi ez diren pertsonak eta sartzeko baldintzak betetzen dituztenak sartuko dira lan-kategoria bakoitzeko poltsan. | Segundo.- Integrantes de las nuevas bolsas<br>1. Formará parte de la bolsa de cada categoría laboral, siempre que no hayan accedido a la condición de personal laboral fijo de esa categoría y cumplan los requisitos de acceso, quienes hayan superado el proceso selectivo especial de consolidación. |
| 2. Kategoria horretan lanpostua finkatzeko prozesu berezirako deialdirik egin ez eta, betiere, kategoria horretako lan-kontratuko langile finko izatea lortu ez badute, lan-kategoria hori finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartu eta prozesu horretatik baztertu ez diren langileak sartuko dira lan-poltsan. | 2. En el supuesto de que no se hubiese convocado un proceso especial de consolidación en esa categoría, siempre que no haya accedido a la condición de personal laboral fijo de esa categoría, se integrará el personal que hubiera participado en el proceso excepcional de consolidación de esa categoría laboral, y no hubiera sido excluido del mismo. |
| 3. Poltsa eratzeko unean lan-poltsako lan-kategorian zerbitzuak ematen ari direnak edo gutxienez bost urtez zerbitzuak eman dituztenak urriaren 1eko lan-poltsan, betiere enplegua finkatzeko hautaketa-prozesuan parte hartu ez badute. | 3. Quienes en el momento de constitución de la bolsa estén prestando servicios o hayan prestado servicios al menos cinco años en la categoría laboral de la bolsa a 1 de octubre, y no hayan participado en el proceso selectivo de consolidación. |
| Hirugarrena.- Lan-poltsako puntuazioa eta ordena.<br>Poltsa bakoitzeko kideak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira honela:<br>1. Hautaketa-prozesu bereziak: 60,000 puntu lortu dituztenek puntu 1 lortuko dute atal honetan; 200,000 puntu lortu dituztenek, | Tercero.- Puntuación en la bolsa y orden.<br>El personal integrante de cada bolsa se ordenará por la puntuación obtenida de la siguiente forma:<br>1. Procesos selectivos especiales: Quienes hayan obtenido una puntuación de 60,000 puntos obtendrán en este apartado 1 |

| | |
|---|---|
| berriz, 3 puntu. Tarteko puntuazioak hainbanatu egingo dira. | punto, y 3 puntos quienes hayan obtenido la puntuación de 200,000. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas. |
| 2. Salbuespenezko hautaketa-prozesuak: 0,001 puntu lortu dituztenek puntu 1 lortuko dute atal honetan; 100,000 puntu lortu dituztenek, berriz, 3 puntu. Tarteko puntuazioak hainbanatu egingo dira. Era berean, hautaketa-prozesuan 0 puntu lortu dutenek 0 punturekin sartuko dira lan-poltsan. | 2. Procesos selectivos excepcionales: Quienes hayan obtenido una puntuación de 0,001 puntos obtendrán en este apartado 1 punto, y 3 puntos quienes hayan obtenido la puntuación de 100,000. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas. Asímismo, quienes hayan obtenido 0 puntos en el proceso selectivo integrarán la bolsa con 0 puntos. |
| 3. Lan-poltsaren lan-kategorian kontratua izateagatik emandako zerbitzuengatik, zerbitzu-denboraren arabera eguneko 0,003 puntu. Lan-poltsan sartuko dira 0 punturekin. | 3. Por servicios prestados como consecuencia del contrato en la categoría laboral de la bolsa, ordenados por el tiempo de servicios a 0,003 puntos por día. Integrarán la bolsa con puntuación 0. |
| 4. Berdinketarik badago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da. | 4. En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. |
| Hala, berdinketa hausteko, emakumeen alde ebatziko da, baldin eta deialdiari dagokion kategorian emakume-kopurua % 40tik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexu-diskriminaziorik eragiten ez dutenak, adibidez: enplegua lortzeko eta lanpostu-mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. | Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en la categoría correspondiente a la convocatoria, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo. |
| Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea proba teoriko-praktikoan (B zatia) lortutako puntuazioa da, handienetik txikienera ordenatuta. | El siguiente criterio de desempate es la puntuación obtenida en la prueba teórico-práctico (parte B), ordenados de mayor a menor puntuación en esa prueba. |
| Berdinketa gertatuz gero, hizkuntza-eskakizuna erabiliko da, hizkuntza-eskakizun handienetik txikienera ordenatuta. | En caso de empate, se usará el perfil lingüístico, ordenados de mayor a menor perfil. |
| Oraindik ere berdinketa badago, berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko urriaren 23ko Ebazpenean argitaratutako letra izango da. Ebazpen horren bidez, argitara | De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en Resolución de 23 de octubre de 2024, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace público el |

| | |
|---|---|
| ematen da zein den 2025-2026 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere aplikatuko dena. Zozketaren emaitza «R» hizkia da. Irizpide hori hurrenkera alfabetikoan aplikatuko da; lehenik, lehenengo abizenarekin; oraindik berdinketa badago, bigarren abizenarekin, eta, azkenik, izenarekin. | resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2025-2026, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar, El resultado del sorteo es la letra "R". Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre. |
| Laugarrena.- Lan-poltsetan dauden langileen egoerak eta lehentasunak<br>1. Langileak lanerako prest egoeran sartuko dira.<br><br>2. Poltsan sartzen diren langileek aukera hauek izango dituzte lehenetsita:<br>- Edozein prestazio-modalitate<br>- Edozein lanaldi<br>- Edozein ordutegi<br>- Edozein eremu geografiko<br><br>3. Interesdunek ebazpen honetan ezarritako lanerako prestasuna eta lehentasunak aldatu ahal izango dituzte Lan-poltsen Atariaren bitartez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da).<br><br>Eta aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik izango dituzte ondorioak. | Cuarto.- Situaciones y preferencias del personal integrante<br>1. El personal se integra en la situación de disponible.<br><br>2. El personal que se integra tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones:<br>- Cualquier modalidad de prestación<br>- Cualquier jornada<br>- Cualquier horario<br>- Cualquier zona geográfica<br><br>3. El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo, de conformidad con lo previsto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.<br><br>Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen. |
| Bosgarrena.- Penalizazioak eta desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa<br>Penalizazioagatik lanerako prest ez egotea mantenduko da, eta langilea sartuko den edozein poltsari eragingo dio. | Quinto.- Penalizaciones y cupo para personas con discapacidad<br>Se mantiene la situación de no disponible por penalización que afecta a cualquier bolsa que se integre. |
| Desgaitasuna duten pertsonentzako 12 hilabetetik gorako iraupena duten 14 lanpostutik 1eko kontratazio-kupoa lehenengo kontratazioa egiten | El cómputo del cupo de 1 de cada 14 plazas de duración mayor de 12 meses para la contratación de personas con discapacidad, se iniciará en el |

| | |
|---|---|
| denean hasiko da zenbatzen, baldin eta desgaitasuna duten langileen kopurua langile guztien % 2ra iristen ez bada. | momento de la primera contratación, cuando no se alcance el 2% de personas con discapacidad sobre el total de efectivos. |
| Seigarrena.- Publikotasuna<br>1. Lan-poltsa berrantolatuak osatzen dituzten langileen zerrenda, gehienez ere, 2 hilabeteko epean argitaratuko da Lan-poltsen Atarian. Egoitza elektronikoaren bidez sar daiteke bertara, baita helbide honen bidez ere: www.euskadi.eus/lan-poltsak<br><br>2. Lan-poltsa lehen aldiz osatzen duten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lan-poltsetako kide direla, zer araudik erregulatzen dituzten eta zer izapide egin behar dituzten lan-eskaintzak jasotzen hasteko. | Sexto.- Publicidad<br>1. El listado de personal integrante de las bolsas de trabajo reordenadas se publicará en el plazo máximo de 2 meses en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección: www.eukadi.eus/bolsasdetrabajo<br><br>2. El personal que integre la bolsa por primera vez recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo. |
| Zazpigarrena.- Lan-poltsan sartzeko eskabidea<br>Eranskin honetako 2.3 artikuluko baldintzak betetzen dituzten langileek kasuan kasuko lan-kategoriako lan-poltsan sartzeko eskatu ahal izango dute, gehienez 10 eguneko epean, dagokion poltsa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. | Séptimo.- Solicitud para integrar la bolsa<br>El personal que cumpla las condiciones del artículo 2.3 de este anexo, podrá solicitar su inclusión en la bolsa de la categoría laboral, en un plazo máximo de 10 días, contado desde el día siguiente a la publicación bolsa correspondiente. |
| III. ERANSKINA. “ALDI BATERAKO LAN-POLTSA” OSATZEKO IRIZPIDEAK | ANEXO III. CRITERIOS DE FORMACIÓN DE LA BOLSA “BOLSA TRANSITORIA” |
| Lehenengoa.- “Aldi baterako lan-poltsako” kideak<br>Kolektibo hauek sartuko dira lan-poltsa honetan, baldin eta kategoria bateko langile lan-kontratudun finko izatea lortu ez badute edo Euskadiko Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-poltsa batean ere ez badaude:<br>1. Deuseztatuko diren lan-poltsaren batekoak direnak, hirugarren artikuluan zehaztuta dauden horiek.<br>2. Lan-kategoriaren bateko lan-poltsa batekoak direnak, baina, indarrean dagoen lanpostu-zerrendaren arabera, horretarako baldintzak betetzen ez dituztenak. | Primero.- Integrantes de la “Bolsa transitoria”<br>Formará parte de esta bolsa, siempre que no hayan accedido a la condición de personal laboral fijo de una categoría o que no integre ninguna de las bolsas de la Administración General de la Comunidad autónoma del País Vasco, los siguientes colectivos:<br>1. Quienes pertenezcan a una de las bolsas que se extinguen, enumeradas en el artículo tercero.<br>2. Quienes pertenezcan a una bolsa de una categoría laboral, para la que de acuerdo a la relación de puestos vigente, no cumple los requisitos. |
| Bigarrena.- Lan-poltsako puntuazioa eta ordena.<br>1. Lan-poltsa bakoitzeko langileak jatorrizko lan-poltsan zuten birbaremazio- | Segundo.- Puntuación en la bolsa y orden.<br>1. El personal integrante de cada bolsa se integrarán por la puntuación por |

puntuazioaren arabera sartuko dira lan-poltsan honetan. Deuseztatuko den lan-poltsa batean baino gehiagotan egonez gero, punturik gehien dituena hartuko da kontuan.

2. Berdinketarik badago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da.

Hala, berdinketa hausteko, emakumeen alde ebatziko da, baldin eta deialdiari dagokion kategorian emakume-kopurua % 40tik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexu-diskriminaziorik eragiten ez dutenak, adibidez: enplegua lortzeko eta lanpostu-mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea proba teoriko-praktikoan (B zatia) lortutako puntuazioa da, handienetik txikienera ordenatuta.

Berdinketa gertatuz gero, hizkuntza-eskakizuna erabiliko da, hizkuntza-eskakizun handienetik txikienera ordenatuta.

Oraindik ere berdinketa badago, berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko urriaren 23ko Ebazpenean argitaratutako letra izango da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da zein den 2025-2026 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere aplikatuko dena. Zozketaren emaitza «R» hizkia da. Irizpide hori hurrenkera alfabetikoan aplikatuko da; lehenik, lehenengo abizenarekin; oraindik berdinketa badago, bigarren abizenarekin, eta, azkenik, izenarekin.

rebaremación que tenía en la bolsa de origen. En el caso de pertenecer más de una bolsa que se extingue, se tendrá en cuenta la puntuación máxima.

2. En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en el la categoría laboral correspondiente a la convocatoria, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

El siguiente criterio de desempate es la puntuación obtenida en la prueba teórico-práctico (parte B), ordenados de mayor a menor puntuación en esa prueba.

En caso de empate, se usará el perfil lingüístico, ordenados de mayor a menor perfil.

De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en Resolución de 23 de octubre de 2024, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2025-2026, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar, El resultado del sorteo es la letra “R”. Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre.

| | |
|---|---|
| Hirugarrena.- Lan-poltsetan dauden langileen egoerak eta lehentasunak<br>1. Langileak lanerako prest egoeran sartuko dira.<br><br>2. Poltsan sartzen diren langileek aukera hauek izango dituzte lehenetsita:<br>- Edozein prestazio-modalitate<br>- Edozein lanaldi<br>- Edozein ordutegi<br>- Edozein eremu geografiko<br><br>3. Interesdunek ebazpen honetan ezarritako lanerako prestasuna eta lehentasunak aldatu ahal izango dituzte Lan-poltsen Atariaren bitartez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera. Agindu horren bidez, Euskadiko Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da.<br><br>4. Aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik izango dituzte ondorioak. | Tercero.- Situaciones y preferencias del personal integrante<br>1. El personal se integra en la situación de disponible.<br><br>2. El personal que se integra tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones:<br>- Cualquier modalidad de prestación<br>- Cualquier jornada<br>- Cualquier horario<br>- Cualquier zona geográfica<br><br>3. El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo, de conformidad con lo previsto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.<br><br>4. Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen. |
| Laugarrena.- Lan-poltsaren kudeaketa<br>Lan-poltsa horrek 6 hilabeteko indarraldia izango du sortzen denetik hasita, eta salbuespenezko kudeaketaren bidez langile-hautatzeko erabiliko da, C eta E antzinatasun-taldeetako lanpostuak betetzeko. Epe hori amaitutakoan, deuseztatu egingo da lan-poltsa hori. | Cuarto.- Gestión de la bolsa<br>Esta bolsa tendrá una vigencia de 6 meses desde su creación y se utilizará para la selección de personal por gestión excepcional para puestos de grupos de antigüedad C y E. Finalizado este plazo esta bolsa se extinguirá. |
| Bosgarrena.- Publikotasuna<br>1. Lan-poltsa berrantolatuak osatzen dituzten langileen zerrenda, gehienez ere, 2 hilabeteko epean argitaratuko da Lan-poltsen Atarian. Egoitza elektronikoaren bidez sar daiteke bertara, baita helbide honen bidez ere: www.euskadi.eus/lan-poltsak<br><br>2. Lan-poltsa lehen aldiz osatzen duten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo | Quinto.- Publicidad<br>1. El listado de personal integrante de las bolsas de trabajo reordenadas se publicará en el plazo máximo de 2 meses en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección: www.eukadi.eus/bolsasdetrabajo<br><br>2. El personal que integre la bolsa por primera vez recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus organismos |

| | |
|---|---|
| autonomoetako lan-poltsetako kide direla, zer araudik erregulatzen dituzten eta zer izapide egin behar dituzten lan-eskaintzak jasotzen hasteko. | autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo. |